



DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA

1. HELBURUA

Deialdi honen xedea, irabazi-asmorik gabeko elkarte eta taldeei eskainitako diru-laguntzen eskaera eta esleipen prozesua arautzea da. Taldeek Pasaiako udalerrian garatuko dituzten jarduera eta egitarauak Pasaiako Udalak dituen helburuekin bat etorriko da.

Jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira diru-laguntzak:

- a) Urteko jarduerak
- b) Ezohiko jarduerak.

Udalak ezohikotzat joko ditu aparteko izaera izateagatik urteko programaketa egiterakoan aurrez ikusi ez direnak. Batzorde bakoitzak erabakiko du jarduera bakoitza “ezohikoa” den ala ez.

2. AURREKONTUAREN AURREIKUSPENA

Pasaiako Udalak urtero aurrekontuaren partida bat dirulaguntzak emateko gordeko du. Dirulaguntzen zenbatekoa ebazpenaren unean dagoen diru-kredituaren arabera izango da, aurrekontuetako maileguak handitzeko obligaziorik gabe.

3. IRIZPIDE OROKORRAK

- a) Dirulaguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa izango da.
- b) Dirulaguntza emateak ez du udala horretara derrigortzen, ez eta gerora eman daitezkeen dirulaguntzetan eskubiderik edo aurrekaririk ezartzen.

4. ONURADUNAK

Dirulaguntza Pasaiako udalerrian egoitza duen irabazi-asmorik gabeko edozein erakunde publiko edo pribatuk eskatu ahal izango du. Egoitza soziala Pasaian ez duten erakundeek ere eskatu ahal izango dute, udalerraren intereserako jarduerak garatzen badituzte.

Ondoko hauek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso: Bateriaezintasun Legeak eragiten dien udaleko hautetsi eta langileek, udal tasak eta zergak ordaindu ez dituztenek edo diru-laguntzak itzuli ez dituztenek, eta diru-laguntzarik ez jasotzeko zigorra jaso dutenek.

Betebehar hauek diru laguntza onartzen duen organoari proposamena bidali aurretik errebisatuko dira.

Salbuespenez, erakundeek hitzarmen-modalitateari heldu ahal izango diote.

5. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- a) Elkaratek, Pasaiako Udaleko Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egon behar dute; edo beren egoitza soziala udalerrri honetan ez badute, beste erregistro publikoren batean.
- b) 9. puntuan jasotako hizkuntza baldintzak bete beharko dituzte.
- c) Onuradunek helburu bererako edo ohiko jardueretarako edozein administrazio edo erakunde pribatu edo publikotatik diru-laguntzarik jasoko balute diru-laguntza ematen dien sailari jakinarazi beharko liokete.
- d) Diruz lagundutako jardueran aldaketa objektibo edo subjektiboren bat egin nahi izanez gero idatziz jakinarazi beharko zaio sailari eta honen erantzuna jaso arte ezin izango da aurrera eraman.
- e) Diruz lagundutako jardueraren publizitatean Pasaiako Udalaren laguntza adierazi behar dute.
- f) Diru-laguntzaren kontrol eta egiaztapenerako, Udal Kontu-hartzailletza eta dagokion udal sailaren mende egongo dira, diru-laguntza motaren arabera.
- g) Udalak kontrol eta egiaztapenerako eskatzen dien informazioa ematea.
- h) Gutxieneko kontabilitatea eraman behar dute, eta gastu eta gainerakoen justifikanteak gorde.

6. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURA

- Diru-laguntzak bi eratakoak izan daitezke, emateko prozeduraren arabera:
 - Zuzenak.
 - Norgehiagokan ematen direnak.
- Emateko prozedurak ondoko urratsak ditu:
 - Deialdia

- Espedientea bideratzea; bertan jasoko dira dagokion Informazio Batzordearen txostena eta sail bakoitzeko teknikari eskudunaren proposamena edo ebazpena.
- Ebazpena
- Eskatzaileei jakinaraztea
- Ezin zaie programa berarentzako diru-laguntza eskatu udal honetako sail ezberdinei.

Deialdia

Eskaera aurkezteko epeak udal sail bakoitzak argitaratuko dituen urteko oinarrietan adieraziko dira.

7. DOKUMENTAZIOA

Diru-laguntza eskuratzeko aurkeztu behar den dokumentazioa udal sail ezberdinek argitaratuko dituzten urteko oinarrietan zehaztuko da.

Eskaera-orrian edota hari erantsita aurkeztu beharreko dokumentuetan akatsik baldin badago, edo osatu gabe baldin badaude, interesdunek hamar eguneko epea izango dute, emaileak eskatzen duenetik kontatzen hasita, aurkitutako akatsak zuzentzeko, hala egin ezean, eskaerari uko egiten diola ulertuko dugu eta prozedura artxibatuko dugu.

8. EBALUAZIOA ETA EBAZPENA

Eskaerak, informazio-batzordeak aztertuko ditu. Ondoren egokitasuna neurtu eta gobernu batzordeari proposamena aurkeztu behin betiko ebazpena egin dezan.

Urteko ohiko jardueretarako dirulaguntza-eskaerak hiru hilabeteko epean ebatziko dira eta berrogeita bost egunean ezohiko jardueretakoak. Ebazpena idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Diru-laguntza zerbitzu publiko bati dagokion transferentzia denez, administrazioaren isiltasunak diru-laguntza ezetsi egin dela esan nahi du.

Dirulaguntza emateko ondoko alderdi hauek neurtuko dira eta eskaerarekin batera aurkeztuko den memorian jasoko dira:

a) Talde eskatzaileari dagokionez:

- Taldeak lanean jarraian daramatzan urteak.
- Antolatzeke erakutsi duen gaitasuna.
- Bazkide eta kideen kopurua.
- Beste erakunde batzuekin batera egindako programak.
- Gaitasun ekonomiko autonomoa.

b) Jarduerari dagokionez:

- Ekintzaren gizarte-esparrua.
- Erabiltzaileentzat doan edo merke izatea.
- Aurreikus daitekeen erabiltzaile kopurua (pasaitarrak eta ez pasaitarrak)
- Euskararen erabilera.

Ondoren aipatzen diren eskaerek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

- Jarduera hauetan parte hartuko dutenen material pertsonala erosteko.
- Lokaletan konponketak eta obrak egiteko.
- Nominak eta lansariak ordaintzeko.

9. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Pasaiako Udalaren iritziz euskararen erabilera normalizatzeko garrantzi handikoa da udal intereseko jarduerak antolatzen dituzten taldeak ere euskara sustatzeko neurriekin bat egitea, hori dela eta:

- Jardueretan euskara erabiltzea baloratu egingo da, hizkuntza horretan egiten direnei puntuazio handiagoa emango zaie.
- Pasaian euskararen erabilera normaltzeko udal ordenantzaren 45. artikuluan jasota dagoena derrigorrez bete beharko dute elkarteek dirulaguntza jaso nahi badute. Beraz, jarduera subentzionatuetan argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar, propaganda, publizitate eta gainerakoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dira. Ekitaldi publikoetan ere, ahozko zein idatzizko jarduna euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.

Elkarteko eguneroko jardunean ere euskara sustatzeko neurriak hartzen saiatuko da elkarteak, elkarteko kideen arteko euskararen erabilera areagotzeko: barne bileretan, barne idatzi eta errotuloetan, eta abarretan.

10. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa onartutako kopurukoa izango da eta elkarte titular eskatzaileari emango zaio. Honek bere aldetik jardueren jarraipen eta kontrolerako eskatuko zaion informazio guztia emateko konpromisoa hartuko du.

Konturako abonauak.

Kasu batzuetan, dirulaguntza bi alditan ordainduko da:

- %75, onartu ondoren eta akordioaren jakinarazpenarekin batera.
- Gainerako %25 a dirulaguntza justifikatu ondoren.

Konturako abonuetan beste ehuneko batzuk ezarri ahal izango dira, baldin eta diruz lagundutako jardueraren erritmoak hala eskatuko balu.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gainditu behar elkarte onuradunak jarduera antolatzeko behar duen kopurua, ez bakarrik, ez beste dirulaguntzekin batera.

11. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA KONTUEN BERRI EMATEA

- ✓ Urteko jardueretarako: diruz lagundutako jarduera edo jardueren memoria zehatza aurkeztu behar da.
- ✓ Ezohiko jardueretarako: jarduera egin eta hilabeteren buruan memoria zehatza aurkeztuko da.

Bi kasuetan:

- a) Gastu eta diru-sarreraren balantzea aurkeztuko da, baita emandako zenbatekoari dagozkion gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak ere.
- b) Jarduera honen publizitaterako erabili izan diren kartel, programa argitalpen eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bana aurkeztuko da.

12. DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA

Ondorengo baldintza hauetakoren bat gertatzen bada udalak, diru-laguntzaren ordainean jasotako diru-kopurua itzultzeko eska dezake; baita diru-laguntza ordaindu denetik itzuli arteko berandutza-interesak ere (interes legala gehi % 25 izango da).

- a) Diruz lagundutako jarduera burutu ez bada edo funtsezko aldaketaren bat izan badu dagokion departamentuak jakin eta onartu gabe.
- b) Dirulaguntza izendatutako jarduerarako ez baizik eta beste zerbaiterako erabili izan bada.
- c) Publizitatean Udalaren babesletza jasotzen ez denean.
- d) Eskatutako dokumentazioa, zehaztutako epean aurkeztu ez bada.
- e) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko lehenengo zenbakian aurreikusita dagoen beste edozein arrazoi. (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra).

Eskuratutako diru-laguntzak itzultzeko beharra, egin ditzaketen arau-hausteetatik independente dira.

Itzultzeko prozedura

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura honako hau da:

- Espedientea irekitzea.
- Alegazioen izapidea.
- Eskumena duen organoaren ebazpena.

Administrazioak itzultzeko beharra deklaratzeko duen eskubidea lau urtera preskribatuko da eta Diru-laguntzen Lege Orokorraren 39. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zenbatuko da.

13. PUBLIZITATEA

Deialdien publizitatea egiteko iragarkiak jarriko dira bertako prentsan eta udaletxe eta alkateordetzetako iragarki-tauletan, eta, beharrezkoa izanez gero, ohiko lekuetan bandoak jarriko dira, eskaerak aurkezteko epea hasi baino hilabete lehenago.

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute arautegia argitaratzeko agindua ematen duen ebazpenaren zati bat, bertan adieraziko da arautegiaren eduki osoa non dagoen jarrita; emandako diru-laguntzen kopurua, banaka hartuta, 3.000 € baino txikiagoa denean izan ezik.

Nolanahi ere, ez dira argitaratuko pertsonen intimitate eta ohoreari eragiten dioten datuak.

14. DIRU-LAGUNTZEN KONTROL FINANTZARIOA

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, dagokion sailak diru-laguntza ematearen aldeko edo kontrako txostena egingo du, baldintzen betetze-mailaren arabera.

15. ARAU-HAUSTE ETA ZIGORREN ARAUBIDEA

Araudi honetan edo dagokion diru-laguntza deialdiaren oinarrietan ezartzen diren beharrak betetzen ez direnean diru-laguntza horiek itzuli egin beharko dira; eta horrez gain, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusten diren arau-hauste eta zigorren araubidea aplikatzeko bidea emango du. (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, 52-68 artikulua).